

Ainhoa Rodriguez Virto

A maila • 1 aipamena

Nire izena Ainhoa da. 18 ditut eta Ordizia izeneko herri txiki batean bizi naiz. Oianguren BHI ikastetxean ikasten dut eta 2.batxilergoa bukatzen ari naiz. Nire zaletasunen artean urpekaritza eta musika daude eta izugarri gustuko ditut misteriozko nobelak.



ARGITXOA

Udako egun eguzkitsua zen, eta urtero bezala Amaia Mallorcan zegoen haren guraso eta anai-arrebekin oporrak igarotzen. Amaia, ez zen gainontzeko nerabeak bezalakoa, ez zituen sare sozialak gustuko eta festetan irtetea ere ez zen bere planik gogokoena. Hark bene-benetan itsasoa maite zuen, eta urtero buzeatzera eta arrantza egitera joaten zen haren aita Patxirekin. Patxi suhiltzailea zen ogibidez, baina Amaiak bezala, izugarri gustuko zuen itsasoa eta marinela ere bazen. Mallorcan, “Jellyfish” izeneko itsasontzi txiki bat zuten -Amaiak zein Patxik izugarrizko estimua ziotena- eta urtero erabiltzen zuten haien espedizio urtarak egiteko. Abentura haietan, Patxik arrantza egiten zuen bitartean, Amaiak itsasoan hondoraturiko altxorak bilatzen zituen, ondoren haren bildumara gehitzeko, eta horrela orduak ematen zituzten.

Goiz hartan, ohi bezala, goiz jaiki ziren Patxi eta Amaia. Jantzi, gosaria hartu eta aurreko egunean prestatutako bazkaria hartuta etxetik irten ziren porturantz. Bidean, Amaiak begi distiratsuz erreparatzen zuen itsasoa, Patxiren Land Rover zaharraren leihatilan zehar. Portura iristean, kotxetik irten eta maletategitik materiala ateratzen hasi ziren. Lehenik motxila biak, toalla eta bainujantzia zeramatzatenak, ondoren Amaiarentzako hegatsak eta azkenik bazkaria zeraman saskia. Dena prestatzen ari ziren bitartean, Amaiak ezagutzen ez zuen kutxa bat ikusi zuen autoaren barnean. Hasieran ez zion garrantzirik eman, baina hain zuen kolore bizia non Amaiak ezin zion begiratzeari utzi. Azkenean, Patxiri galdetu zion ea zer zen, eta hark aurpegian irribarrea zuela, pozik aitortu zion berarentzako oparia zela. Hasieran ezin zuen sinetsi eta minutu batzuk igarota, oparia ireki zuen. Argazki kamera bat zen, baina ez arrunt horietakoa, baizik eta ur-azpian argazkiak ateratzekoa; izan ere, Amaiari izugarri gustatzen zitzaion arrainei argazkiak ateratzea eta oparia ezin hobea zen horretarako. Aitari besarkada handia eman eta alaitsu itsasontzian sartu zen, aitzak autoa ixten zuen bitartean.

Hamabi eta erdietarako prest zeuden abenturari hasiera emateko. Itsasontziko aingura askatu, portutik atera eta ordu bat igarota, toki ikusgarri bat aurkitu zuten. Sakontasun gutxiko zonalde bat zen, algaz eta kolore ugariko arrainez beterik. Amaia txunditurik zegoen kolore eta mugimendu anitzez osaturiko ikuskizun harekin. Bi aldiz pentsatu gabe, Amaiak arropa erantzi, hegatsak jantzi eta kamera berria eskuan zuela, salto handi batez uretan murgildu zen. Lehendabizi, zipriztinek ikaraturik arrain guztiek ihes egin zuten baina apurka-apurka itzultzen hasi ziren eta Amaiak kamera erabiltzeko aukera izan zuen.

Leku hartan kolore, tamaina eta izaera ugariko arrainak zeuden. Amaiaren gustukoenak arrain kirurgialariak ziren, haien kolore urdinak itsasoaren hondoa eta abuztuko zeru argitsua ekartzen baitzizkion gogora. Amaia ur azpian bueltaka zebilen bitartean, Patxi itsasontziko eserleku batean etzanda zegoen eguzkitan, eguzkitako betaurreko metalikoak jantzita eta guzti. Hain zegoen gustura non lo gelditu zen eguzkipean.

Amaia arrainei argazkiak atera eta atera zebilen. Bat-batean, inoiz ikusitako arrainik politena begiztatu zuen urrunean. Tamaina txikikoa zen, alboetan kolore arrosa zuen eta hegatsak urdinak. Amaia harriturik gelditu zen, eta bitan pentsatu gabe arrainaren atzetik joan zen argazki bat ateratzeko asmoarekin. Azkenean, eta lasterketa luze baten ondoren, arrainari argazkia ateratzea lortu zuen Amaiak, baina konturatu zenerako, hain zegoen itsasontzitik urrun non ezin zuen hura ikusi ere egin. Larriturik eta noraezean, Amaia itzultzeko bidea bilatzen saiatu zen, baina arrakastarik gabe.

Ordu pare bat igaro ziren eta Amaia gero eta nekatuago eta urduriago zegoen. Tupustean, uretan murgildurik zegoela, argitxo txiki bat ikusi zuen urrutian. Amaia ez zegoen ziur zer izan zitekeen hura, baina senari jarraituz argitxorantz joatea erabaki zuen. Hiruzpalau ordu eman zituen igerian argitxoari segika eta Amaiari argitxoa gero eta urrunago zegoela iruditzen zitzaion. Hala ere, hari jarraika segitu zuen berak ere ulertzen ez zuen sentimendu batek bultzaturik. Azkenean eta haren azken energiak agortuz, argitxoaren jatorrira heldu zen Amaia. Argia, Patxiren betaurreko metalikoek sorrarazten zuten eguzkia haietan islatzen zenean.

Amaia poz-pozik zegoen eta nekatuta zegoen arren, barrezka hasi zen aitaren betaurrekoek salbatu zutela konturatu zenean. Haren algarek Patxi karramarroa esnatu zuten; izan ere, eguzkipean orduak eman ondoren erre-erreta zegoen. Patxik gorputz osoa minberatua zuela, Amaia irribarretsuari so egin zion eta egoera ulertu gabe barrezka hasi zen bera ere. Alaitasun momentua igaro ondoren, Amaia itsasontzira igo zen deskantsatzeko eta zerbait jateko asmoarekin. Askariaren ondoren, Amaiak Patxiri gertatutakoa kontatu zion eta honek ia sinetsi ezinik besarkatu egin zuen, haren betaurreko metalikoei eskerrak emanez.

Arratsaldeko gainerako orduak arin igaro ziren, Amaiak lotan eman zituen eta bitartean Patxik arrantza egin zuen. Zortziak iritsi ziren eta bikoteak naturak eskainitako ilunabarraz gozatu zuen. Ordurako, itzultzeko oso berandu zela konturatu zen Patxi eta Amaiari bertan lo egin zezaten proposatu zion. Honek baiezkua eman zion eta afaria prestatzeari ekin zioten. Afaltzeko, Patxik arrantzaturiko arrainak jan zituzten, eta arrain frijituaren eta itsasoaren usain gaziaren artean lo geratu ziren.

Hurrengo goizean kaioen kantu sarkorrak esnatu zituen. Patxi oraindik erredurengatik minberaturik, ohetik altxatu zen ehun urteko pertsona baten antzera eta poliki-poliki sukaldera hurbildu zen. Ordurako, Amaia gosaltzen ari zen eta aitarentzako kafe beroa prestatu zuen mahai gainean. Patxik biziki eskertu zuen kafea eta hilabetez jan gabe egon izan balitz bezala edan zuen.

Arrastian, Patxik eta Amaiak itzultzeko bidea hartu zuten etxera itzultzeko asmotan. Zoritxarrez, erredurek ondoeza eragiten zioten Patxiri eta itzultzerakoan galdu egin ziren. Zer egin jakin gabe eta kostaldea ezin ikusirik, itsasontzia noraezean zebilen Mediterraneoko itsaso zabalean. Orduak igaro ziren eta Patxi geroz eta okerrago sentitzen zen. Amaiak, geroz eta larrituago, urrunera begiratzen zuen lagunduko zuen zerbaiten bila egongo balitz bezala.

Bat-batean eta segundo pare batez, Amaiari urrutian argitxo bat ikusi zuela iruditu zitzaion. Sinetsi ezinik, begiak igurtzi zituen. Berrito begiratu zuen eta oraingoan argitxoa bertan zegoela ziurtatu zuen. Ilusioaren ilusioz, salto batez Patxirengana joan zen. Amaia ziur zegoen argitxoak berrito ere salbatuko zuela eta sentimendu horri jarraituz argitxoari segika hasi ziren. Pare bat orduz egon ziren argitxoari jarraika, baina Amaiak Patxik ez bezala, konfiantza osoa zuen argitxoan.

Azkenean, eta Patxiren harridurarako, argitxoak kostaldera eramane zituen. Patxik, egoerak asaldaturik, eskerrak eman zizkion zeruari etxera itzultzeagatik eta malko artean Amaia gogotsu besarkatu zuen. Amaiak artean, argitxoari eman zizkion eskerrak eta haren jatorriaz galdetu zion bere buruari.

Portura iristean, Amaiak haren ama eta anai-arrebak aurkitu zituen haiei itxaroten. Itsasontzitik irtene eta denak besarkada estu batean urtu ziren. Une hartan, Amaiak amak zeraman lepokoari erreparatu zion. Amaiak oparitutako lepokoa zen, harribitxi bat zintzilik zuena. Momentu hunkigarri hura hautsiz, Amaiak lepokoa eskatu zion amari eta eguzki izpiekin kontaktuan jarrita argitxo salbatzailearen jatorria aurkitu zuen. Aita ere argitxoaren jatorriaz ohartu zen eta biak barrezka hasi ziren. Gainerako senideak, ezer ulertzen ez zutela, zur eta lur geratu ziren.

Harrezkero, urtero Mallorcara joaten zirenean, aitaren betaurreko metalikoak eta amaren lepoko distiratsua eramatea ezinbesteko bihurtu zen, galtzekotan argitxoei jarraitzeko. Horretaz gain, "Jellyfish" itsasontziari izena aldatu zioten eta "Argitxo" izenaz bataiatu zuten.